Respecto de la tipología de estas Spin off, destacan las generadas en el entorno empresarial, que suponen un 65% del total, y el buen comportamiento habido en las provenientes tanto de Centros Tecnológicos como de Universidades, que conjuntamente suponen el restante con 35%.

3.1.3. Enpresa abian jartzea

Atal honetan hauexek dira daturik esanguratsuenak:

	2011. urtea / Año 2010
Lehiakortasuna Hobetzeko Plana. 2. Arloa / Plan de Mejora de la Competitividad Area 2	
Enpresa proiektuen diagnostikoa / Diagnóstico de proyecto de empresas	82
Lagundutako enpresak / Empresas apoyadas	66

Lagundutako 66 proiektuetatik 45 2011n sortutakoak dira, 21 aurreko urteko deialditik datozelako eta abiapuntuko datuak hauexek dira:

3.1.3. Puesta en marcha de la empresa

En este capítulo, los datos más relevantes son:

De las 66 empresas apoyadas, son 45 las constituidas en 2011, ya que 21 proceden de la convocatoria del año anterior, siendo sus datos de partida:

	Enpresa Kopurua / Número empresas	Sozietatearen Kapitala / Capital social	Inbertsioak / Inversiones	Sarrerak / Ingresos	Enplegu zuzena / Empleo directo
Enpresek burututa Ejecutado por Empresas	45	2.808.907	5.055.037	12.163.313	176
Batezbestekoa enpresako Media por empresa		62.420,15	112.334,15	270.295,84	3,91

Datu esanguratsuenen artean aipatu behar da enplegua batez beste %0,5 igo dela.

Como nota más característica, señalar que el empleo sube, como promedio, en 0,5 personas/empresa.

3.1.4. Enpresa abian jartzea eta garatzea

2011n hazteko ahalbide handiak dituzten enpresa proiektu sortu berrietarako laguntza egitarau hauetan —erakunde laguntzailea gara- lortutako emaitzak hauexek dira: 2 proiektu Connect Egitarauan eta 1 Miniconnect-en.

3.1.4. Despegue y desarrollo de la empresa

Los resultados obtenidos en 2011 en estos programas de apoyo a proyectos empresariales de reciente creación con alto potencial de crecimiento, en el que somos entidad colaboradora, han sido de 2 proyectos en el Programa Connect y 1 en el de Miniconnect.

3.2. Proiektu berrien eta enpresa berritzaileen inkubazioa

BEAZek zenbait egoitzatan dauzka bere “enpresa inkubagailuak” eta hauen helburua bikoitza da: proiektuei azpiegiturak eta ekipamenduak hornitzea eta bertan kokatzen diren baltzuei ezarpen fasean babes zerbitzuak ematea.

3.2. Incubación de nuevos proyectos y empresas innovadoras

BEAZ cuenta con diversas sedes donde se localizan sus “incubadoras de empresas” cumpliendo una doble función: dotar de infraestructuras y equipamientos a los proyectos y proporcionar servicios de tutela durante la fase de implantación a las compañías allí ubicadas.

3.2.1. Biokabi

Zamudioko Biokabi zentroak 550,84 m²-ko azalera dauka 5 bulego modulutan banatuta. Tamainak 45 eta 70 m² bitartekoak dira eta guztiz hornituta dauden 2 laborategi daude.

3.2.1. Biokabi

El centro Biokabi de Zamudio cuenta con una superficie de 550,84 m² dividida en 5 módulos de oficina, con tamaños comunes entre los 45 y los 70 m² y 2 laboratorios perfectamente equipados.

Laborategietako batean bakarrik erabilera orokorreko tresnak daude eta bestea zelula hazkuntzak egiteko erabiltzen da.

Halaber, badaude beste gela batzuk, hala nola bilera gela eta aurre-inkubazio gela.

Ekitaldi honetan Bizkaiko Teknologia Parkearekin zegoen hitzarmena luzatu da.

Gaur egun Zamudioko Biokabin guztira 3 enpresa daude 4 modulutan:

- Vacunek, S.L.U., animalien paratuberkulosiaren aurka txerto bat garatu eta merkaturatu nahi duena.
- Bioftalmik, S.L., oftalmología arloan espezializatuta dagoen bioteknologia enpresa.
- Biofungitek, biofungiziden garapenean diharduen enpresa.

Ekitaldi honetan bioinkubagailutik bi proiektu ateratu dira: Embryomics eta MD Renal.

3.2.2. ZITEK proiektua

EHUrekin eta Ekonomi Sustapen Sailarekin batera kudeatzen den inkubagailu sarea da.

a) Portugaleteko inkubagailua

Portugaleteko enpresen unibertsitate inkubagailuak enpresentzat 955 m²-ko azalera dauka guztira 23 modulutan banatuta.

2011. urtearen amaieran 9 proiektu daude azpiegitura honetako 11 modulutan: APRECLINIST, ELKAR CONSULTING, ZENTRALCOM, HBIO XXI (2modulu), COMMERCIAL DIVING ACTIVITIES (2modulu), CANAL 70 RADIO, ELEMENTS COMUNICACIÓN, SOCIMANIA eta BIKANDI INTERNACIONAL, eta beste bi proiektu daude sustatzaileen aretoan.

b) Leioako inkubagailua

EHUren Leioako campusean dagoen inkubagailuak 680 m²-ko azalera dauka eta horietatik 400 m² enpresentzako 8 modulutan banatzen dira.

Gainera badauzka sustatzaile gela, bilera gela, zerbitzu orokorrak eta denek erabiltzeko laborategia.

Uno de los laboratorios está destinado únicamente a instrumental de uso común, mientras que el otro se utiliza para llevar a cabo cultivos celulares.

Asimismo, se cuenta con otras estancias como el salón de reuniones y una sala de preincubación.

Durante el presente ejercicio se ha procedido a la renovación del Convenio con el Parque Tecnológico de Bizkaia.

Actualmente en Biokabi Zamudio se encuentran un total de 3 empresas que ocupan 4 módulos:

- Vacunek, S.L.U. dedicada al desarrollo y puesta en marcha en el mercado de una vacuna contra la paratuberculosis animal.
- Bioftalmik, S.L. empresa biotecnológica especializada en el campo de la oftalmología.
- Biofungitek, empresa dedicada al desarrollo de biofungicidas.

Durante este ejercicio han salido de la bioincubadora dos proyectos: Embryomics y MD Renal.

3.2.2. Proyecto ZITEK

Se trata de la red de incubadoras que se gestionan junto con la UPV-EHU y el Departamento Promoción Económica.

a) Incubadora Portugalete

La incubadora universitaria de empresas de Portugalete, cuenta con una superficie disponible para empresas de 955 m², distribuida en un total de 23 módulos.

Al finalizar el año 2011, 9 proyectos ocupan 11 módulos de esta infraestructura: APRECLINIST, ELKAR CONSULTING, ZENTRALCOM, HBIO XXI (2módulos), COMMERCIAL DIVING ACTIVITIES (2 módulos), CANAL 70 RADIO, ELEMENTS COMUNICACIÓN, SOCIMANIA y BIKANDI INTERNACIONAL, con dos proyectos adicionales en la sala de promotores.

b) Incubadora Leioa

La incubadora sita en el campus de la UPV en Leioa, cuenta con una superficie de 680 m², de los cuales 400 m² se distribuyen en 8 módulos para empresas

Cuenta además con sala de promotores, sala de reuniones, servicios generales y un laboratorio de uso común.

Gaur egun 5 proiektu daude bertan kokatuta: INGEOTYC, KIMIKER CHEMICAL RESEARCH, NOVATTIA, IMG PHARMA BIOTECH eta CDR Sb PYROLISYS.

Gainera inkubagailu honetan irabazteko asmorik ez duten 2 ikerkuntza erakunde daude kokatuta eta berrikuntza eta produktu berrien iturria izango direla espero dugu: ESS BILBAO (3 modulu) eta MAITE FUNDAZIOA

c) Ingeniaritza Eskolako inkubagailua

400 m² inguru dauzka 8 modulutan banatuta: teknikari batentzako bulegoa, Zerbitzu Orokorrak, 4 enpresa modulu, 1 ekintzaileentzat eta bilera gela bat.

Urtearen amaieran hiru enpresa zegozen: SYSTEM ON CHIP ENGINEERING, SEALPATH TECHNOLOGIES eta TAPQUO S.L., eta proiektu bat sustatzaileen gelan: CASTELLAN IBERICA.

3.2.3. Deustokabiko inkubagailua

1a 500 m²ko azalera dauka. Gaur egun bertan 11 enpresa daude kokatuta: Mathlan Matemátika, S.A., Nebutek Soluciones, S.L., Documents Software, S.L., Edooca Sociedad Cooperativa, Tech About, S.L.L., Symplio Lifestyle Technologies, S.L., Imedian Point, S.L., Beermeetering, S.L., Proyecto Gamad, S.L., eta Workmunity, S.L.

Gainera, oraindik merkataritza era juridikorik hartu ez duten beste bi proiektu daude.

3.2.4. Tecnalía T4 inkubagailua

2008ko azaroan inauguratu zen inkubagailu hau Tecnalía Fundazioak Bizkaiko Teknologia Parkean dauzkan instalazioen barruan.

Haren helburua bere inguruan sortzen diren oinarri teknologikoko enpresa berriak inkubatzeko da.

Instalazioek 5 modulu dauzkate enpresa berrientzat, gutxi gorabehera 40 m²-koak moduluko. Gainera Tecnalía-ko ekintzailetza taldeak zein bertan kokatuta dauden ekimenek erabil ditzaketen bi bilera gela daude.

Une honetan inkubagailuan okupazio handia dago, jada 5 enpresa baitaude bertan (Diede, Mobile Dream, Oceantec, Energy Minds, Agla 4D).

En la actualidad, existen 5 proyectos ubicados en la misma: INGEOTYC, KIMIKER CHEMICAL RESEARCH, NOVATTIA, IMG PHARMA BIOTECH y CDR Sb PYROLISYS.

También se ubican en la Incubadora 2 instituciones investigadoras sin ánimo de lucro, que esperamos que sean fuentes de innovación y de nuevos proyectos: ESS BILBAO (3 módulos) y FUNDACIÓN MAITE.

c) Incubadora Escuela de Ingeniería

Cuenta con una superficie de unos 400 m² distribuidos en 8 módulos: oficina destinada a un técnico, Servicios Generales, 4 módulos para empresas, 1 para emprendedores y 1 sala de reuniones.

Al finalizar el año, se cuenta con tres empresas ubicadas: SYSTEM ON CHIP ENGINEERING, SEALPATH TECHNOLOGIES y TAPQUO S.L., y con un proyecto ubicado en la sala de promotores: CASTELLAN IBERICA.

3.2.3. Incubadora Deustokabi

Con una superficie de ocupación de así 500 m², En la actualidad se encuentran ubicadas allí 11 empresas: Mathlan Matemátika, S.A., Nebutek Soluciones, S.L., Documents Software, S.L., Edooca Sociedad Cooperativa, Tech About, S.L.L., Symplio Lifestyle Technologies, S.L., Imedian Point, S.L., Beermeetering, S.L., Proyecto Gamad, S.L., y Workmunity, S.L.

Además, coexisten con dos proyectos más, que aún no han adoptado forma jurídica mercantil.

3.2.4. Incubadora Tecnalía T4

El 21 de noviembre de 2008 se inauguró esta incubadora dentro de las instalaciones que la Fundación Tecnalía tiene el Parque Tecnológico de Bizkaia.

La finalidad de la misma es la incubación de nuevas empresas de base tecnológica que se generen en su entorno.

Las instalaciones están provistas de 5 módulos para nuevas empresas de unos 40 m²/módulo; además, cuentan con dos salas de reuniones que pueden ser utilizadas tanto por el grupo de emprendimiento de Tecnalía como por las propias iniciativas allí ubicadas.

En estos momentos la ocupación de la incubadora es alta, contando ya con la presencia de 5 empresas (Diede, Mobile Dream, Oceantec, Energy Minds, Agla 4D).

Aipatzekoa da enpreson jardute-eremuak nabarmen ezberdinak direla.

3.2.5. AIC (Automotive Innovation Center) inkubagailua.

AICko inkubagailu berriak 140 m² dauzka, horietatik 100 ekintzailetzarako eta 40 enpresa ekimen berrietarako.

2011. urtean AIC Fundazioarekin egindako kudeaketan helburua erakunde bion arteko lankidetzaz hitzarmena abian jartzea izan zen.

Hasitako lanaren ondorioz AIC Scope, enpresa berria sortu da, AICren Lehiatzeko Inteligentzia eta Teknologiaren Zaintza arloan egindako hausnartze-lanaren fruitu. Gainera bere inguruan aurkeztu diren ekimen berriak tutorizatu dira, aholkularitza tekniko eta enpresariala eman baitzaie. Azpimarratzekoak dira AICko enpresetan sortutako ekimenak, hala nola T-Evolo proiektua, Snowmoped eta Microimplantes

Aldi berean, inkubagailu honen barruan enpresa ekimen berriak burutzeko beharrezkoak diren irizpideak ezarri dira eta, halaber, proiektu bakoitzaren faseak eta etapa bakoitzean duten iraupena erabaki dira.

3.2.6. Egoitza Bizkaiko Teknologia Parkean

Zamudioko Teknologia Parkean inkubazioaren gaian dugun presentzia indartzeko eta inguru honetako enpresen ekintzailetza bultzatzeko, BEAZko pertsona bi leku honetan ari dira lanean, Azpiegiturak Parkean daukan Elkartegian.

4. Sentikortzea eta komunikazioa

BEAZ, S.A.U.k ekiteko eta berritzeko kultura bultzatu behar du Bizkaiko ETEen artean. Horretarako funtsezkoa da ekintzak burutzea enpresariei eta beste zenbait gizarte talderi negozioarako oinarritzko estrategiatzat berrikuntza baliatu behar dutela erakusteko.

Honetaz, zenbait ekimen burutu dira eta horien bitartez guztira ia 500 enpresa eta profil teknikodun ikasketetako ikaslerengana iritsi da.

Se da la circunstancia, además, de que los campos de actuación de estas empresas difieren sustancialmente unos de otros.

3.2.5. Incubadora AIC (Automotive Innovation Center)

La nueva Incubadora de AIC cuenta con 140 m² destinados 100 de ellos al emprendimiento y 40 en módulos que serán cedidos a las nuevas iniciativas empresariales.

Durante el año 2011, las gestiones llevadas a cabo con la fundación AIC estuvieron encaminadas a la puesta en marcha del Convenio de colaboración de ambas entidades.

El trabajo emprendido ha fructificado en la creación de una nueva empresa llamada AIC Scope, que proviene del trabajo de reflexión sobre el área de Inteligencia Competitiva y Vigilancia Tecnológica del AIC, así como en la tutorización de nuevas iniciativas presentadas en su entorno, a las que se les ha dado un asesoramiento tanto técnico como empresarial. Cabe destacar las iniciativas cuyo origen son empresas del AIC, como el proyecto T-Evolo, Snowmoped y Microimplantes

Paralelamente, se han establecido los criterios necesarios para la ejecución de nuevas iniciativas empresariales dentro de esta incubadora, así como se han delimitado las fases de cada proyecto y su vigencia en cada una de las etapas.

3.2.6. Sede en Parque Tecnológico de Bizkaia

Cara a reforzar nuestra presencia en el Parque Tecnológico de Zamudio en materia de incubación y con la finalidad de impulsar la labor emprendedora de las empresas de este entorno, dos personas de BEAZ vienen desarrollando su actividad profesional en esta ubicación, sita en el Elkartegi que Azpiegitura posee en dicho Parque.

4. Sensibilización y comunicación

BEAZ, S.A.U., ha de impulsar la difusión de la cultura emprendedora e innovadora entre las pymes de Bizkaia. Para ello es básico el desarrollo de acciones encaminadas a concienciar al empresariado, y a otros nichos de la sociedad, de la necesidad de adoptar la innovación como estrategia fundamental de negocio.

En este sentido, se han ejecutado diferentes iniciativas, con las que se ha llegado a un colectivo total de cerca de 500 empresas, promotores y estudiantes de carreras de perfil técnico.

4.1. sentikortzeko ekintzak

4.1.1. Ekintzailletza arloan sentikortzeko ekintzak

Gai honetan azpimarratzekoa da enpresen hazkunderako Egitaraua, AICren instalazioetan 2011ko martxoaren 11n eta apirilaren 5ean burutua. IESE Negozio eskolak parte hartu zuen eta esku hartu zuten 10 enpresek eta proiektuek oso positibotzatjo zuten.

Jardunaldiaren helburua ekintzaileei laguntza ematea zen, profil teknologiko eta inbertitzeko profila daukaten pertsonen artean dagoen hizkuntza ezberdintasunak dakarren lubakia gainditzeko eta enpresei hausnartzeko eta beren antolakundearen hazkundera lortu ahal izateko metodologia espezifikoak hornitzeko.

Teknologia zentroekiko lankidetzaren esparruan, otsailean "Teknologia enpresa mundura" ikastaroa antolatu zen otsailean. Tecnalia T4 inkubagailuak eman zuen, ikertzaileei eta teknologia zentro eta enpresetako sustatzaileei zuzenduta, eta ikastaroaren 5 saioetan 30 pertsonak esku hartu zuten, guztira 40 ordu eginez bertan.

Ikastaro horren helburua Teknologia eta Berrikuntza eraginkortasunez kudeatzeak duen garrantziaz ohartzea zen, aukera hauteman, merkatura eramane eta balioa eskuratzeko.

EHUko Unibertsitate arloan egindako ekintzei dagokienaz, esanguratsuenen artean "Hasten Ikasten" mintegiak daude.

Azken ikasturteetako ikasleak ekintzailletzan has daitezzen EHUren Bilboko Ingeniaritzako Goi Eskola Teknikoko Zitekin Bilbao inkubagailuan eman ziren.

8 mintegi burutu dira, bakoitza 15na ordu presentzialekoa eta guztira 200 pertsonak parte hartu zutela.

4.1.2. Patenteei buruz sentikortzeko ekintzak

Nahiz eta 2010. urtean gai honetaz sentikortzeko eta hedatzeko berebiziko ahalegina egin bazen ere, 2011n hedakunderako jardunaldi bakarra antolatu da: "Industria jabetzaren Finantza alderdiak", maiatzaren 12an Bilboko Itsas Museoan burutua.

4.1. Acciones de sensibilización

4.1.1. Acciones de sensibilización en emprendimiento

En esta materia cabe destacar, el Programa de metodologías para el crecimiento de las empresas, celebrado en las instalaciones de AIC los días 11 de marzo y 5 de abril 2011 con la participación de la Escuela de negocios IESE y cuya valoración por parte de las 10 empresas y proyectos participantes ha sido muy positiva.

La finalidad de la jornada no era otra sino la de ayudar a los emprendedores a superar el gap que les supone la diferencia de lenguaje entre una persona con perfil tecnológico y una persona inversora, así como dotar a las empresas de metodologías específicas para la reflexión y posibilidad de crecimiento de sus organizaciones.

En el ámbito de la colaboración con los centros tecnológicos, durante el mes de febrero se organizó un curso denominado "De la Tecnología al Mundo Empresarial", impartido en la Incubadora de Tecnalia T4, para investigadores y promotores de centros tecnológicos y empresas, a la que acudieron 30 personas durante las 5 sesiones en las que consistió el curso, para acumular un total de 40 horas.

El objetivo de dicho curso era interiorizar la importancia de la gestión eficiente de la Tecnología y la Innovación, para detectar la oportunidad, trasladarla al mercado y capturar el valor.

Respecto de la actuación desplegada en el ámbito Universitario de la UPV-EHU, y como acción más relevante, se encuentran los seminarios "Hasten Ikasten".

Con la meta de iniciar en la experiencia de emprender a estudiantes universitarios de los últimos cursos, fueron impartidos en la Incubadora ZITEK BILBAO de la Escuela Técnica Superior de Ingeniería de la UPV/EHU.

Se han celebrado 8 Seminarios con una duración de 15 horas presenciales cada uno, y un total de 200 asistentes.

4.1.2. Acciones de sensibilización en patentes

Si bien en el año 2010 se hizo un especial hincapié en la sensibilización y difusión de esta materia, en el año 2011 solo se ha llevado a cabo una jornada de difusión: "Aspectos Financieros de la Propiedad Industrial": organizada el 12 de mayo en el Museo Marítimo de Bilbao.

Jardunaldi honen helburua ETEen artean industria jabetzari lotutako finantza alderdiak zabaltzea zen, bai zerga pizgarrien eta baliagarri dauden diru-laguntzen ikuspuntutik zein enpresaren aktibo ukiezin bezala balioesteko ikuspuntutik.

Ahalegin handiagoa egin da trebakuntzaren arloan, 6 mintegi eta tailer antolatu baitziren.

Jarduerok jarraian agertzen dira kronologia ordenaren arabera:

- Industria Jabetzari buruzko oinarritzko mintegia, Durangaldeko Enpresa Elkartean, otsailaren 24 eta 25ean.
- Industria jabetzan sakontzeko tailerra, BEAZ, SAUn, ekainaren 5 eta 16an.
- "Patenteak enpresan: I+G+b emaitzen babesa eta transferentzia praktikan" mintegia, BEAZ, SAUren instalazioetan irailaren 15 eta 16an burutua.
- ETEen aholkulari / solaskideentzako tailer aurreratua Industria Jabetzaren bidez berrikuntza babesteari buruz, SPRIrekin elkarlanean antolatua bere instalazioetan, urriaren 26 eta 27an.
- Industria jabetzari buruzko 2 tailer unibertsitarienentzat: Industria Ingeniaritza Teknikoaren Unibertsitate Eskolan (urriaren 6, 13, 20 eta 27an eta azaroaren 3 eta 10ean), eta Industria Ingeniariaren Goi Eskola Teknikoan (azaroaren 2, 3 eta 4an).

4.1.3. Berrikuntzan sentikortzeko ekintzak

-Diseinu arloko profesional eta enpresentzako trebakuntza mintegia

BEAZ, SAUK, EIDE, Euskadiko Diseinugileen Elkartearekin batera, Trebakuntza Mintegia antolatu zuen diseinu arloko ETE eta autonomoei zuzenduta.

Produktu eta zerbitzu berritzaileak ezartzeko (R)Evolution Design mintegiak 16 ordu iraun zuen eta helburua Design Thinkingean oinarritutako negozio irekien ereduak sortzeko tresnak aurkitzea zen. Eredu horiek erabiltzen ari dira balioa sortzeko, diseinu arloko kasu arrakastatsuak ezagutzeko eta ondoren eman nahi diren ikastaroak aurkezteko, enpresetan kudeaketa eta diseinu berritzaile sistema eta produktu berriak txertatzeko.

Fue una sesión con el objetivo de difundir entre las pymes, los aspectos financieros asociados a la protección industrial, tanto desde el punto de vista de incentivos fiscales y ayudas disponibles, como de su valorización como activo intangible de la empresa.

Sí se ha hecho mayor hincapié en el ámbito formativo, con la organización de 6 seminarios y talleres.

Estas actividades se detallan a continuación por orden cronológico:

- Seminario básico en Propiedad Industrial en la Asociación de Empresas del Duranguesado, los días 24 y 25 de febrero.
- Taller de Profundización en la Propiedad Industrial, en BEAZ, S.A.U., los días 5 y 16 de junio.
- Seminario "Patentes en la empresa: protección y transferencia de resultados de I+D+i en la práctica" en las instalaciones de BEAZ, S.A.U., los días 15 y 16 de septiembre.
- Taller avanzado para asesores / interlocutores de pymes sobre protección de innovaciones mediante la Protección Industrial, organizado en colaboración con SPRI, en sus instalaciones, los días 26 y 27 de octubre.
- 2 Seminarios de Propiedad Industrial para Universitarios: en la Escuela Universitaria de Ingeniería Técnica Industrial (6, 13, 20 y 27 de octubre, 3 y 10 de noviembre), y en la Escuela Superior de Ingenieros Industriales (2, 3 y 4 de noviembre).

4.1.3. Acciones de sensibilización en innovación

-Seminario de formación para profesionales y empresas del sector del diseño

BEAZ, S.A.U., junto con EIDE, Asociación de Diseñadores del País Vasco organizó un Seminario de Formación dirigido a las Pymes y autónomos del sector diseño.

El Seminario para la implementación de productos y servicios innovadores (R)Evolution Design, de una duración de 16 horas, tuvo como objetivo descubrir herramientas de generación de modelos de negocios abiertos basados en el Design Thinking, modelos que están siendo aplicados para crear y generar valor, conocer casos de éxito en el mundo del diseño y presentar los cursos que a continuación se pretenden impartir con el fin de introducir los nuevos sistemas y productos de gestión y diseño innovador en las empresas.

Jarduera hau 2011ko azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean burutu zen eta 25 parte-hartzaile izan ziren.

EOI-Industria Antolaketarako Eskolak eman zuen mintegia. Ekonomia Jasangarrian, Gizarte Ekonomian eta Ekonomia Digitalean espezializatuta dago eskola.

- Bilbo, diseinuaren munduko hiriburua 2014an
- Historikoki industria diseinu sektorearekin eta ideiarekin sustatzaileekin izan dugun lotura dela-eta, 2010etik Bilbo 2014an diseinuaren munduko hiriburua izan dadin hautagaitza garatzen parte hartu dugu.

Hautagaitza prestatzerakoan gure helburu nagusia honelako ekitaldiek duten efektu traktorean interesaturik dauden eragileen parte-hartzea bultzatzea izan da, hautagaitza indartzeko ekintzak proposa ditzaten gonbidapena eginez.

BEAZ, SAU, beste erakunde batzuekin batera, Taipei (Taiwan) burutu zen Diseinuaren Munduko Biltzarrean lehiaketaren finalean egon zen urte honetako urrian eta Bilbo azkenean bigarren lekuan gelditu zen.

Hala ere, esperientzi horren ondorioz ekite-gune bat piztu da diseinu eta ekonomia sortzailearen inguruan, eta segida izango duenez BEAZ, SAUK parte hartzen jarraituko du.

- Industria diseinuaren sektorearen egoeraren azterketa.

Diseinuaren esparruaren barruan industria diseinuak Bizkaian benetan duen egoeraren azterketa zehatza egin da, harekin elkarrenergian ari diren agenteekin elkarlanean.

- Ekodiseinu gela

Aurreko bederatzi edizioetan bezalaxe, Bilboko Ingeniaritzako Goi Eskola Teknikoarekin eta IHOBErekin elkarlanean, Ekodiseinu Gelaren hamargarren edizioa abiatu da hamabi ikaslearekin.

Trebakuntza egitaraua 2011ko azaroan hasi zen eta 2012ko irailean amaituko da ikasleek ikasketa amaierako proiektuak aurkeztuz. Den-denak industria diseinuarekin eta ingurumenarekin lotuta daude..

Esta acción tuvo lugar los días 30 de noviembre y 1 de diciembre de 2011, con la asistencia de 25 participantes.

Se trató de un Seminario impartido por EOI- Escuela de Organización Industrial, escuela especializada en la Economía Sostenible, Economía Social y Economía Digital.

- Bilbao, Capital mundial del diseño 2014
- Debido a nuestra vinculación histórica con el sector del diseño industrial y con los promotores de la idea hemos participado desde 2010 en el desarrollo de la candidatura Bilbao para la capital mundial del diseño 2014.

La preparación de la candidatura se ha centrado en hacer intervenir al mayor número de agentes interesados en el efecto tractor de un evento de este tipo, invitándoles a proponer acciones que potenciaran esa candidatura.

BEAZ, S.A.U., estuvo presente, junto a otras instituciones, en la final de este certamen, celebrado en el Congreso Mundial de Diseño, en Taipei (Taiwan) en octubre de este año, donde Bilbao quedó finalmente en segunda posición.

Esta experiencia ha posibilitado, no obstante, la activación de un polo de actividad alrededor del diseño y de la economía creativa, que va a tener su continuidad y en las que BEAZ, S.A.U., va a seguir participando.

- Estudio de situación del sector del diseño industrial

También en el ámbito del diseño, se ha realizado un estudio pormenorizado de la situación real del sector del diseño industrial en Bizkaia, contando con los diferentes agentes que interactúan con el mismo.

- Aula de ecodiseño

Como en las nueve ediciones anteriores, en colaboración con la Escuela Técnica Superior de Ingeniería de Bilbao, e IHOBE, se ha puesto en marcha la décima edición del Aula de Ecodiseño, con doce estudiantes.

El programa formativo dio comienzo en noviembre de 2011 y finalizará en septiembre de 2012 con la presentación de los proyectos de fin de carrera, relacionados todos ellos con el diseño industrial y el medio ambiente, de los alumnos.

4.1.4. Berrikuntzan sentikortzeko beste ekintza batzuk

- VISIO 2011 biltzarra

“Antolakundeetan Berritzeko Zaintza eta Inteligentzia Sistematikoa” izenarekin biltzarra ekainaren 2 eta 3an burutu zen Bilbon. BEAZ, SAUK antolatu zuen euskal berrikuntza sistemako eragile nagusiak diren SPRI, IK4 eta Tecnaliarekin batera.

Gai honetaz espainiar Estatuan antolatzen den biltzar nagusia da eta edizio honetan beste diziiplina batzuekin lotzen ahalegindu gara, hala nola berrikuntza irekia, elkar-sorkuntza, sormena eta on-line ospea, bai sektore eta lurralde ikuspegitik hartuz, arlo horretan dauden joera berriak erakutsiz.

Guztira 180 pertsona izan ziren jardunaldietan eta azpimarratzekoa da nazioartera zabaltzeko egindako ahalegina EEN Sareko ekintzak bateratuz, ekainaren 1ean “Decentralized Training” bat antolatuz, sareko bazkide guztien parte-hartzeaz. Ekainaren 2an, gainera, biltzarreko saio batekin batera “Brokerage Event” bat antolatu zen: 28 enpresak esku hartu zuten eta 75 bilera egin ziren.

Azpimarratzekoa da ere VISIO enpresen bigarren bilkura, 49 enpresak esku hartu zuten.

- “Ideien uhartea” lehiaketa

Lehiaketaren edizio hau BEAZ, SAUK Bilbon 2011ko uztailen burutu zen bideojokoaren hilabetearen egin zuen ekarpenaren parte bat izan zen.

Batez ere unibertsitate ikasleei zuzentzen zaien “Ideien uhartea” serious game bat da, jolasetaz gain balioa eman nahi duen Interneten bidezko jokoa. Kasu honetan helburua parte-hartzaileek zenbait gai jorra zitzaizkien: ekimena, malgutasuna, talde-lana, eta gainera konponbide sortzaile eta berritzaileak bila zitzaizkela.

Oraingo honetan 300 ikasle baino gehiagok parte hartu zuten.

- “Industria sortzaileak”, berrikuntzarako apustua jardunaldia

4.1.4. Otras acciones de sensibilización en innovación

- Congreso VISIO 2011

Bajo la denominación de “Vigilancia e Inteligencia Sistemática para la Innovación en las Organizaciones”, este congreso tuvo lugar los días 2 y 3 de junio en Bilbao, organizado por BEAZ, S.A.U., junto con SPRI, IK4 y Tecnalia, principales actores del sistema de innovación vasco.

Se trata de la principal conferencia que se organiza sobre esta temática a nivel estatal, y en esta edición hemos tratado de unirlo a otras disciplinas como la innovación abierta, la co-creación, la creatividad y la reputación on-line, tratarla desde el punto de vista tanto sectorial como territorial, y hablar sobre las nuevas tendencias en dicho ámbito.

Con un total de 180 asistentes a las distintas jornadas, cabe destacar el esfuerzo realizado para su internacionalización a través de la integración de actividades de la Red EEN, con la organización de un “Decentralized Training” el día 1 de junio, con aforo completo de socios de la red, y la organización de un “Brokerage Event” en paralelo a una de las sesiones de la conferencia el 2 de junio, en el que participaron 28 empresas, y se realizaron 75 reuniones.

También cabe destacar la 2ª edición del Encuentro de Empresas VISIO, al que asistieron otras 49 empresas.

- Concurso “La isla de las ideas”

Esta edición de este concurso fue parte de la aportación de BEAZ, S.A.U., al mes del Videojuego celebrado en Bilbao en julio de 2011.

Dirigido principalmente a estudiantes universitarios “La isla de las ideas” es un serious game, un juego a través de Internet que intenta aportar valor más allá del entretenimiento, en este caso el objetivo era que los participantes trabajasen aspectos como la iniciativa, la flexibilidad o el trabajo en equipo y buscasen soluciones creativas e innovadoras.

En esta ocasión se contó con la participación de más de 300 estudiantes.

- Jornada “Industrias creativas, una apuesta de innovación”

Ekonomia Sustatzeko Sailari atxikia dagoen Azpiegiturak, SAU foru Sozietatearekin elkarlanean jardunaldi hau Kalitate eta Bikaintasunaren XVII. Astearen esparruan burutu zen.

AENORen ekarpenaz gain jokabide eredugarrien adibide bi izan ziren, trebakuntza arloan Digipena eta enpresarenean Virtualwarerena.

4.2. Komunikazio ekintzak

Komunikazio Arloak aurretik Sozietate guztiarentzat aipatu diren ia ekintza guztietan parte hartzen badu ere, gainera jarraian aurkezten diren beste jarduera batzuk burutzen ditu.

4.2.1. Erakundearen weba

BEAZ, SAUren zerbitzu ildoei buruzko eduki finkoez gain, zenbait ataletan informazio gaurkotua eskaintzen dugu gure jarduerekin eta inguru hurbileko gertakari eta albisteei buruz.

Gainera hainbat elkarriketa egin ditugu gurekin harremanak izan dituzten pertsona eta enpresen ordezkariekin (High Identity Building, CMZ, Anboto...)

4.2.2. Buletin digitala

Hilero kaleratzen da bi bertsioetan (euskaraz eta erdaraz) eta bertan webean argitaratzen diren albisterik esanguratsuenak biltzen dira (300 inguru urtero).

Aurten, gainera, hilero beste buletin bat bidali dugu patenteei buruz, industria jabetzari buruzko txosten eta albisteekin horniturik.

4.2.3. 2.0 weba eta gizarte sareak

Jarduera profil berriak aldatu eta egokitu ditugu esku hartzen duguneko gizarte sareetan.

Facebooken abian jarri dugu Komunikazio arloko erabiltzaile kideek kudeaketa konpartitua egiteko, informazioa sartzeko errazagoa izan dadin. Gaur egun 456 lagun dira gure jarraitzaileak sarean.

En colaboración con Azpiegiturak, S.A.U., Sociedad foral adscrita al Departamento de Promoción Económica, esta jornada se celebró en el ámbito de la XVII Semana de la Calidad y la Excelencia.

Además de la intervención de AENOR, contó con dos ejemplos de buenas prácticas en el mundo de la formación, con Digipen, y en el de la empresa, con Virtualware.

4.2. Acciones de comunicación

Si bien el Área de Comunicación participa en la práctica totalidad de las acciones relacionadas con anterioridad para toda la Sociedad, lidera, por su parte, otras actividades que se presentan a continuación.

4.2.1. Web corporativa

Además de los contenidos fijos, centrados en las líneas de servicios de BEAZ, S.A.U., ofrecemos distintas secciones de información actualizada sobre noticias y eventos relacionadas con nuestra actividad y nuestro entorno más cercano.

También se han realizado diversas entrevistas con personas y representantes de empresas con las que nos relacionamos (High Identity Building, CMZ, Anboto...)

4.2.2. Boletín digital

De carácter mensual, se editan dos versiones (euskera y castellano) y se recopilan las noticias más relevantes que se publican en la web (cerca de 300 anuales).

Este año, se ha enviado, adicionalmente, un nuevo boletín trimestral, específico sobre patentes, con informes y noticias sobre la propiedad industrial.

4.2.3. Web 2.0 y redes sociales

Hemos cambiado y adaptado los nuevos perfiles de actividad en las diferentes redes sociales en las que estamos presentes y activos.

En Facebook hemos puesto en marcha una página de gestión compartida por los usuarios miembros del área de Comunicación para facilitar la introducción de información. Actualmente nos siguen 456 personas por esta red.

Twitter-en 1317 twit argitaratu ditugu 669 jarraitzaile ditugu. Halaber, 203 erabiltzailearen jarraitzaileak gara eta horrek aukera ematen digu albiste eta ekitaldi interesgarriei dagokienez adi egoteko.

YouTuben eta Flickrren bideo eta argazkiak eta ikus-entzunezko bestelako materiala sartzen jarraitzen dugu.

4.2.4. Ikus-entzunezko material didaktikoa editatzea

Gure zerbitzuak erabili dituzten enpresen artean jardunbide onen kasuak ezagutzera emateko, 3 bideo labur egin dira (4-5 minutu), era atseginean eta protagonisten lekukotza zuzenak erabiliz, enpresek berrikuntza proiektuak aplikatzen dituzten esperientziak erakusteko eta zabaltzeko.

4.2.5. Erakundearen irudia

Enpresaren komunikazio elementuen gain-ikuspen eta kontrola egin da, bai ikusteko elementuena zein testuena, haien maila eta homogeneotasuna bermatzeko (liburuxkak, argitalpenak, jardunaldiak, sariak, weba, etab.). Gainera, testu guztien euskarapen eta egokitzapena egin da.

Beste aldetik, kanporako zenbait zerbitzu egin dira, batez ere Ekonomi Sustapen Sailarentzat (egitarauen eskaera-inprimakien maketazioa, liburuxkak eta aurkezpenak).

4.2.6. Erakundearen liburuxkak

Enpresaren zerbitzu berriak ezarri eta gero, erakundearen liburuxka berria editatu beharra egon da. Argitalpen horretan egokiro azaltzen zerbitzu guztiak eta merkatuan ditugun gainerako eskaintza interesgarriak.

Gaitera, barne-ekintzailatza zerbitzua hedatzeko liburuxka espezifiko diseinatu eta editatu dugu.

4.2.7. Argitalpenak editatzea

Zenbait gaitako hiru liburu argitaratu eta zabaltzeko dira: "Energia berriztagarrien gidaliburua", "Ekonomi-finantza kudeaketaren eskuliburua ekintzaileentzat", eta "Enpresa jardunbide onenei buruz".

Komunikazio atala liburuak itzultzeaz eta haien diseinu eta maketazioaz arduratu da.

En Twitter, hemos publicando 1317 twits y tenemos 669 seguidores. A su vez, nosotros seguimos a 203 usuarios, lo que nos permite estar alerta de noticias y eventos de interés.

En YouTube y Flickr seguimos incluyendo vídeos y fotografías y otro material audiovisual

4.2.4. Edición de material audiovisual didáctico

Con objeto de difundir casos de buenas prácticas en las empresas que hayan utilizado nuestros servicios, se han realizado 3 vídeos de corta duración (4-5 minutos) que ilustran y reflejan de forma amena, y utilizando testimonios directos de los protagonistas, las experiencias de las empresas en la aplicación de proyectos de innovación.

4.2.5. Imagen corporativa

Se ha realizado una supervisión y control de los elementos de comunicación de la empresa, tanto de los aspectos visuales como de textos, para asegurar el nivel y homogeneidad de los mismos (folletos, publicaciones, jornadas, premios, web, etc.) De igual manera, se ha realizado la traducción íntegra de todos los textos al euskera.

Por otra parte, se han realizado diversos servicios externos, fundamentalmente para el Departamento de Promoción Económica (maquetación de impresos solicitud de programas, folletos y presentaciones).

4.2.6. Folletos corporativos

Una vez definidos los nuevos servicios de la empresa, ha sido necesario editar un nuevo folleto corporativo, donde se explican convenientemente cada uno de los servicios y el resto de ofertas de interés que disponemos en el mercado.

También se ha diseñado y editado un folleto específico de difusión del servicio de Intraemprendimiento.

4.2.7. Edición de publicaciones

Se han publicado y difundido tres libros de diferente temática: "Guía de energías renovables", "Manual de gestión económico-financiera para emprendedores" y "Sobre las mejores prácticas en la empresa".

Comunicación se ha ocupado de las traducciones al euskera y del diseño y su maquetación.

II. Akzio propioak

Sozietateak ez du eragiketarik egin akzioekin 2011ko ekitaldian eta den-denak Bizkaiko Foru Aldundiarenak dira.

III. Sozietateak izan dezakeen bilakaera

2012. urteari dagokionez Sozietatea behin betiko sendotuko dela espero da, bai antolaera egiturari zein ekite arlo berriak bilatzeari dagokienez.

IV. Ikerkuntza eta garapen arloko jarduerak

BEAZ, SAUk ez du egin, ez du egiten eta ez dio beste inori eskatu ikerkuntza eta garapen proiekturik egiteko, holakotzat hainbat urtetako alditan konputatzekoa den errentagarritasuna eman behar duten produktuak garatzeko baliatzen diren diru-kopuruak ekitaldi batzuetan inbertitzen direnak joz.

Hala ere, berebiziko ahalegina egin da Sozietatean eskainitako zerbitzuak hobetzeko bere jarduerako arlo guztietan dagoen teknologia erabiltzeko eta, baita ere, bere baliabideekin nahiz inoren laguntzarekin, negozioaren kudeaketa erraztuko duten tresnak garatzeko. Dena dela, Sozietateak ez du inolako diru-kopururik aktibatu garapen horiei dagozkien kostuen zioz.

V. Finantza arriskuak kudeatzeko politika

BEAZ SAUren helburu soziala dela-eta eta bazkide bakarra denez Bizkaiko Foru Aldundiak haren gaineko jabetza duenez, Sozietateak ez du inolako finantza arriskurik, holakotzat honakoak jota:

- truke-tasaren arriskua
- likidezia arriskua
- interes-tasaren arriskua eskudiruaren fluxuetan

VI. Finantza tresnak

Sozietateak ez du inolako finantza tresnarik kontratatzen, ez aktibo ez pasiborik.

II. Acciones propias

La Sociedad no ha realizado operaciones con acciones durante el ejercicio 2011, perteneciendo todas ellas a la Diputación Foral de Bizkaia al cierre del mismo.

III. Evolución previsible de la Sociedad

Para el año 2012, se espera la consolidación definitiva de la Sociedad, tanto a nivel de estructura organizativa como de lanzamiento de nuevas áreas de actuación.

IV. Actividades en materia de investigación y desarrollo

BEAZ, S.A.U., no ha realizado, ni realiza ni ha encargado a terceros proyectos de investigación y desarrollo, entendiendo como tales aquellos en los que durante varios ejercicios se invierten cantidades destinadas al desarrollo de productos de los que se espera una rentabilidad que debe computarse en periodos plurianuales.

Sin embargo, se ha realizado un especial esfuerzo en aplicar en la Sociedad aquella tecnología disponible en todas las áreas de su actividad para mejora los servicios ofertados, así como en el desarrollo, con sus propios medios o con la ayuda de terceros, de instrumentos que faciliten la gestión del negocio. No obstante, la Sociedad no ha activado cantidad alguna correspondiente a los costes incurridos en dichos desarrollos.

V. Política de gestión de riesgos financieros

Dado el alcance del objeto social de BEAZ, S.A.U., y la propiedad que la Diputación Foral de Bizkaia ostenta sobre ella como socio único, la Sociedad no está expuesta a riesgo financiero alguno, entendidos como tales los relativos a:

- riesgo de tipo de cambio
- riesgo de liquidez
- riesgo de tipo de interés en los flujos de efectivo

VI. Instrumentos financieros

La Sociedad no realiza contratación de instrumento financiero alguno, ya sea de activo o de pasivo.